

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

839

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 8koa, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2023ko maiatzaren 10eko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

2023ko maiatzaren 22an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 2023ko maiatzaren 10eko Agindua, unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2023-2024 ikasturtean, hizkuntza-proiektuaren berrikuntza-proiektuei lotuta.

Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak ebatzi zuen deialdia eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, deialdi-aginduaren 14.2 artikulua araberak, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.—Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, Hezkuntza sailburuaren 2023ko maiatzaren 10eko Aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen onuradunen zerrenda (ikus eranskina). Agindu horren bidez, deialdia egiten zaie unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2023-2024 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (2023ko maiatzaren 22ko EHAA, 95.zk.).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 8a.

Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria,
AMAIA AGIRRE PINEDO.

2024ko otsailaren 16a, ostirala

ERANSKINA

DIRULAGUNTZEN ESLEIPENA

Elkarte/Federazio Eskatzailea	Esleitutako dirulaguntza
Euskal Herriko Ikastolak	432.470,87
Kristau Eskola	583.142,58
Ikasgiltza	32.166,58
AICE	23.121,86
Eusko Ikastola Batza	203.094,75
Elizbarrutiko Ikastetxeak	58.003,36